# Aurkibidea

1.- Sarrera.......................................... 03

2.- Lege markoa.................................. 05

3.- Printzipio orokorrak....................... 09

4.- Ezaugarriak................................... 11

5.- Egitura.......................................... 13

6.- Helburu orokorrak......................... 15

7.- Helburu zehatzak eta ekintzak....... 17

8.- Urteko Ekintza Plana...................... 37

# 1.- Sarrera

Itsasondoko I Berdintasun Plana emakume eta gizonen berdintasunaren alde Itsasondoko Udalak hartua duen konpromisoaren adierazlea da. Dagokigun konpromisoarekin, datozen urteetarako berdintasun politika ezberdinak martxan jartzea erabaki dugu eta Plan honek berdintasun politika guzti horien norabide orokorra zehazten lagunduko digu.

Azken urteotan mugimendu feministari esker nabariak izan dira emakume eta gizonen berdintasunaren bidean eman diren aurrera pausoak, emakumeen lan merkaturatzea izango litzatekeelarik aipagarriena. Ikuspegi formal batetik begiratuta, eskubideen aitortzan asko aurreratu dugu eta gaur egun nazioarte mailako legedi eta arau ezberdinek emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak ezartzeko irizpideak zehazten dituzte. Argi dugu ordea, formalki eskubideak aitortu arren, bide luzea dugula emakume eta gizonen parekidetasunean oinarritutako gizarte eredua eraikitzeko, eta Plan hau osatzea, bide horretan egingo dugun lehenengo urratsa izan dela.

Azpimarragarria da gainera, Plana osatzerakoan herriko eragile ezberdinak izan duten jarrera. Eragile guztien ekarpenak jaso eta denon artean osatutako plan bat diseinatzeko Berdintasunaren aldeko Mahaia osatu dugu, eta bertan herriko hainbat eragilek parte hartzen dute. Parte hartze horretan oinarrituko dira martxan jarriko ditugun hainbat eta hainbat ekintza, eta aurrerantzean ere, dagoenekoz bertako kide diren eragileez gain gainontzeko eragileek ere parte hartu dezaten bultzatzea da gure helburua, horretarako bitartekoak eskainiz. Beraz Itsasondoko Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuet Planaren diseinuan eta aurrerantzean martxan jarriko ditugun ekintzetan parte hartuko duzuen herritar orori.

Itsasondoko Udala

# 2.- Lege markoa

Emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioa hainbat lege eta arauetan dago jasoa:

Nazioarteko araudiari dagokionez Emakumeen kontrako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) azpimarratuko genuke, 1979ko abenduan Nazio Batuen Erakundearen Biltzar Nagusiek onartua, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi zuena. Konbentzioaren 2. artikuluan kideek ondorengo konpromisoa hartu zuten: "printzipio hori legeen bitartez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betetzen dela bermatzea".

Europar Batasunaren kasuan, Amsterdameko Ituna indarrean sartzearekin batera, emakume eta gizonen berdintasuna Europar Batasuneko oinarrizko printzipio bilakatu zen. Batasuneko kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sutatzeko helburua barneratu beharra jaso zen bertan.

Beste aldetik, Euskal Autonomi Erkidegoko Estatutuaren 9.1 artikuluan berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da, Espainiako Konstituzioan jasotakoari erreferentzia eginez. Gainera Estatutuko 9.2.d artikuluan herri agintariei betebehar bat ezartzen die, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin, pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatu eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra alegia.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen Euskal Erakundea sortzeari buruzko Legea onartu zuen, 2/1988 Legea hain zuzen. Lege honen helburuen artean emakumeen bereizkeria mota guztiak ezabatzea, eta emakumeek Erkidegoko eremu guztietan parte hartzea bultzatzeko neurriak hartzea jasotzen dira. 2/1988 Legea garatzeko helburuarekin gainera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegoko emakumeentzako hiru Ekintza Positiboko Plan onartu ditu. Bertan bizitzaren esparru guztietan emakume eta gizonen berdintasuna bermatzeko herri administrazioen betebeharren oinarrizko jarraibideak zehazten dira. Momentu honetan, legealdi honetarako 2006an onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana dago indarrean.

Emakume eta Gizonen Berdintasunaren aldeko 4/2005 Legeak oso garbi zehazten ditu emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean administrazio publiko bakoitzari dagozkion zereginak. Honen harira, Udal administrazioak behartzen ditu, gizon eta emakumeen berdintasuna errealitate bat izan dadin baldintzak sortu, oztopoak kendu eta berdintasuna politika eta ekintza guztietan txertatzera.

Ondorioz, 4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio Udal Administrazioari:

a) Udal Administrazioan genero ikuspegia txertatzeko helburuarekin azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea.
b) Udal eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
c) Udal eremuan programak gauzatzea, beti ere, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren eta foru Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
e) Udal eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak bideratzea.
f) Udal eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerei buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizatzea.
g) Toki araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera.
h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
i) Bereizkeria anitza jasaten duten emakumeek, udalaren eskumenekoak diren oinarrizko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea.
j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek udal eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Udal eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokeen beste edozein eginkizun betetzea.

# 3.- Printzipio orokorrak

Berdintasunaren aldeko Itsasondoko I Plana ondorengo printzipioetan oinarritzen da:

• *Tratu berdintasuna:*
Sexuan oinarritzen den bereizkeria oro ezabatzeari egiten dio erreferentzia, bai bereizkeria hori zuzenekoa izanda baita zeharkakoa izanda ere.

• *Aukera berdintasuna:*
Gizon eta emakumeei aukera berdintasuna bermatu behar zaie, oinarrizko eskubideak egikaritzean bereizkeriarik izan ez dezaten, horretarako bitartekoak eskainiz.

• *Aniztasun eta ezberdintasunaren errespetua:*
Emakume eta gizonen berdintasuna lortzera bidean egon daitezkeen ezberdintasun egoerak (biologiko, bizi baldintzak, beharrak, e.a.) kontutan hartzean datza.

• *Genero ikuspuntua kontuan hartzea:*
Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuarekin, Itsasondoko eragile sozial eta politiko guztiek ekintza edo neurri ezberdinak martxan jartzerakoan, emakume eta gizonen egoera, behar eta baldintzak ezberdinak kontutan hartzean, genero ikuspegia barneratzen dutela ulertuko da.

• *Ekintza positiboa:*
Helburu gisa emakume eta gizonek bizi ditugun ezberdintasun egoerak ezabatzea helburu duten, eta denboraz mugatuak dauden behin behineko neurriak dira.

• *Sexuaren araberako rol eta estereotipoak deuseztea*:
Ahalegin berezia egin beharko da sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzeko, rol eta estereotipo hauek baitira emakume eta gizonen desberdintasunaren oinarri, emakumeak eremu pribatuari eta gizonak eremu publikoari lotarazten dituztenak.

• *Ordezkaritza orekatua:*
Herriko erabaki gune ezberdinetan emakume eta gizonek ordezkaritza orekatua izan behar dute, bertan emakumeek parte hartu dezaten, horretarako bitartekoak eskainiz.

• *Lankidetza eta koordinazioa:*
Itsasondoko I Berdintasun Plana garatzerako orduan eragile guztien elkarlana eta koordinazioa ezinbestekoa izango da.

Berdintasunaren aldeko Itsasondoko I Planaren filosofia ulertzeko bi estrategia mota hartu behar dira kontutan:

1.- *GENERO ZEHARKAKOTASUNA* (genero *mainstreaming)*
Ezinbesteko estrategia da genero-politiken garapenean., eta honela definitzen dute adituak: *Botere publikoek gauzatzen dituzten politika eta ekintza guztietan, maila eta une guztietan genero ikuspegia integratzean datza, gizon eta emakumeen arteko desorekak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko*. Zeharkakotasunak izan behar du, beraz, berdintasunaren inguruko politika guztien ardatza.

*2.- EKINTZA POSITIBOA*
Bizitzako eremu guztietan, hau da ekonomia, politika, kultura eta jendarteko eremu guztietan dauden gizon eta emakumeen arteko desorekak murriztera eta desagerraraztera bideratutako neurri espezifiko eta behin behinekoak dira.

Estrategia biak, zeharkakotasuna eta ekintza positiboa, berdintasun politiken elementu osagarriak dira. Zeharkakotasuna elementu eraldatzaile iraunkorra da eta ekintza positiboa berriz, behin behinekoa, hots, egoera zehatz bati dagokiona.

# 4.- Ezaugarriak:

Itsasondoko I  Berdintasun Planak ondorengo ezaugarriak ditu:

• Parte hartzailea:
Bai Planaren diseinua bera, baita bere garapena ere Itsasondoko eragile sozial, politiko eta sindikalen parte hartzean oinarritzen da. Parte hartze hau iraunkorra izateak ahalbideratuko du Planaren iraunkortasun eta eraginkortasuna.

• Irekia:
Plana gauzatzen ari den bitartean egokitu egin daiteke, uneko egoera eta behar ezberdinetara.

• Integrala:
Emakumeenganako zapalketa bizitzaren esparru guztietan ematen denez, hau gainditzeko Planak esparru guzti horietan eragingo duten neurriak barneratu beharko ditu.

• Ebaluagarria:
Planak barneratutako ekintzek, ebaluazio adierazleak jasotzen dituzte, eta beraz, urtean urteko plangintza garatu ostean, helburuak lortzeko eginiko aurrera pausoak kuantitatiboki eta kualitatiboki baloratzeko aukera ematen dute.

# 5.- Egitura

Egiturari dagokionez, Planak lau ardatz estrategiko zehazten ditu, arlo bakoitzean barneratu beharrekoak. Ondorioz arlo bakoitzaren barruan ardatz estrategiko bakoitzari dagokion helburu orokor bat zehazten da, hots, epe luzerako helburua. Helburu orokor hori lortzeko ordea, epe motz eta ertaineko helburu zehatzak zehazten dira, eta helburu hauek izango dira, fase bakoitzean gauzatutako urratsen balorazioa egiterako orduan kontutan hartuko direnak. Horretarako, helburu zehatz bakoitzaren barruan berau lortzeko ekintza ezberdinen zerrenda, eta helburu zehatza ebaluatzeko adierazleak barneratzen dira.

Ardatzek landu beharreko lehentasunezko gaiak ezartzen dituzte, eta ondorengoak dira Itsasondoko I Berdintasun Plan honetan jasotzen direnak. Genero zeharkakotasuna (*genero-mainstreaming*), emakumeen jabetzea eta gizartean eta politikan parte hartzea, familia eta lan bizimoduak bateratzea eta erantzunkidetasuna, eta emakumeen kontrako indarkeria. Ardatz horiek beraiek dira EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Aldeko IV. Planak ezartzen dituenak:

**1) Genero zeharkakotasuna**

Zeharkakotasunari *mainstreaming* ere esaten zaio. 1987. urtean proposatu zuen aurreneko aldiz Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak. Zeharkakotasunaren zeregina da genero ikuspuntua kontuan hartzea; hau da, martxan jarritako ekintza edo politika guztietan, aintzat hartzea emakumeek eta gizonek egoera, baldintza, nahi eta behar desberdinak dituztela.

**2) Emakumeen jabetzea eta gizartean eta politikan parte-hartzea**

Emakumeen autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa, e.a. sustatzean datza. Emakumeen jabetzeak, eta gizarte eta politikan parte hartzeak emakume eta gizonen berdintasunaren bidean emakumeen autonomia areagotzea eragiten du.

**3) Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna**

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra sustatzean datza. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarriak izateko bai emakumeentzat baita gizonezkoentzat ere. Horretarako gizonezkoak etxeko lanetan duten erantzunkidetasuna sustatu, zer-

bitzu publikoak hobetu eta enplegua norbera eta familiaren beharretara egokitzea ezinbestekoa izango da.

**4) Emakumeen aurkako indarkeria**

Batetik, indarkeria sexistaren prebentzio neurriak ezartzean datza. Bestalde erasotuari asistentzia psikologiko, juridiko eta ekonomikoa ziurtatzea. Indarkeria sexistatzat hartuko dira, sexu ziozko indarkeriazko egitate guztiak, baldin eta, horren emaitza gisa, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa egiten bazaio. Indarkeria sexistatzat hartuko dira baita ere, emakumeengan sufrimendua eragiteko egindako mehatxuak, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bai eremu publikoan baita eremu pribatuan ere.

Ondoren zehaztuko diren arloak, Itsasondoko herrian esku hartzeko zehaztu ditugun arloak dira.

1. arloa: **UDALA**
2. arloa: **HEZKUNTZA**
3. arloa: **OSASUNA**
4. arloa: **LANA ETA ENPLEGUA**
5. arloa: **KULTURA ETA KIROLA**
6. arloa: **HIRIGINTZA**
7. arloa: **GIZARTE EKINTZA**
8. arloa: **AISIALDIA**

# 6.- Helburu orokorrak

| | 1. ardatza: **GENERO ZEHARKAKO-TASUNA** | 2. ardatza: **EMAKUMEEN JABETZEA ETA PARTE HARTZE SOZIO POLITIKOA** | 3. ardatza: **BATERAGARRI-TASUNA ETA ERANTZUN-KIDETASUNA** | 4. ardatza: **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA** |
|---|---|---|---|---|
| **UDALA** | Udal administrazioaren kudeaketan genero ikuspegia txertatzea | Udalean emakumeen jabetzea ahalbideratuko duten baldintzak sortzen joatea | Udalaren jarduerak bateragarritasuna ahalbideratzen duela ziurtatzea | Udalean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko baldintzak ematen direla ziurtatzea |
| **HEZKUNTZA** | Herria berdintasunean oinarritutako heziketaren garrantziaz sentsibilizatzea | Ikasleen ordezkaritzako organoetan emakumeen parte hartzea bultzatzea | Ikastetxean erantzunkidetasuna eta bateragarritasunaren inguruko filosofia sustatzea | Itsasondoko ikastetxean emakumeen kontrako indarkeria ekiditeko elkarren arteko tratu onak bultzatzea |
| **OSASUNA** | Itsasondoko osasun arloan genero ikuspegia txertatzea | Emakumeek osasunari eta sexualitateari dagokionez erabakiak hartzera bultzatzea | Adineko eta menpeko pertsonak zaintzen dituzten emakumeen osasun egoera hobetzea | Erasotuak izan diren emakumeei laguntza eraginkor eta berehalakoa eskaintzea |
| **LANA ETA ENPLEGUA** | Enpleguaren eremuan aukera berdintasuna sustatzea | Lan merkatuko langileen batzordeetan eta erabaki guneetan emakumeen jabetzea eta parte hartzea sustatzea | Itsasondon eremu pribatu eta publikoko ardurak bateratzea bultzatzeko baldintzak bermatzea | Lan eremuan emakumeen kontrako indarkeriarekin amaitzeko bitartekoak lantzea |
| **KULTURA ETA KIROLA** | Herriko kultur eta kirol jardueretan genero ikuspegia txertatzea | Emakumeak kultur taldeetan duten parte hartzea sustatzea | Kultur sormenaren bitartez bateragarritasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzea | Kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea |

| | 1. ardatza:<br><br>**GENERO ZEHARKAKO-TASUNA** | 2. ardatza:<br><br>**EMAKUMEEN JABETZEA ETA PARTE HARTZE SOZIO POLITIKOA** | 3. ardatza:<br><br>**BATERAGARRI-TASUNA ETA ERANTZUN-KIDETASUNA** | 4. ardatza:<br><br>**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA** |
|---|---|---|---|---|
| **HIRIGINTZA** | Bazterkeriarik gabeko hirigintza eredua garatzea | Hirigintzan emakumeek duten parte hartzea sustatzea | Bateragarritasuna erraztuko duen hirigintza eredua lantzea | Herriko espazio guztietan emakumeen segurtasuna bermatzea |
| **GIZARTE EKINTZA** | Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea | Bazterketa soziala eta txirotasuna jasan dezaketen emakumeen jabetzea bultzatzea | Menpekoen zaintzaz arduratzen diren emakumeei eremu pribatu eta publikoko ardurak bateratzeko erraztasunak eskaintzea | Indarkeriarekin amaitzeko gizarte ekintza egokia bideratzea |
| **AISIALDIA** | Aisialdian genero ikuspegia txertatzea | Herriko aisialdi ekimenetan emakumeen parte hartzea sustatzea | Erantzunkidetasuna sustatzea aisialdiko ekimenetan | Aisialdian emakumeen kontrako indarkeriaz sentsibilizatzea |

# 7.- Helburu zehatzak eta ekintzak

## Udala

1 ardatza: **genero zeharkakotasuna**

Helburu orokorra: **udal administrazioaren kudeaketan genero ikuspegia txertatzea**

1.G.1. Helburu zehatza: I Berdintasun Plana ezagutaraztea bai Udaleko langileei, bai Itsasondoko biztanleei, baita herriko eragile ezberdinei ere.

Ekintzak:

- 1.G.1.1.- I Berdintasun Planaren aurkezpen publikoa egitea.
- 1.G.1.2.- I Berdintasun Plana eragile, herritar, enpresa, e.a.en artean banatzea.
- 1.G.1.3.- I Berdintasun Plana banatzea Udal langileen artean.
- 1.G.1.4.- Udaleko web orrian I Berdintasun Plana atxikitzea.
- 1.G.1.5.- I Berdintasun Planaren baitan burutzen diren ekintza desberdinei buruzko informazioa kaleratzea.
- 1.G.1.6.- Berdintasunaren aldeko mahaia sortzea eta berari jarraipena egitea.
- 1.G.1.7.- Urtean urteko plangintzak onartu eta ebaluatzea.
- 1.G.1.8.- Langile bat kontratatzea I Berdintasun Planaren kudeaketa eta dinamizazio lanetarako.

1.G.2. Helburu zehatza: Udal kudeaketan genero ikuspegia barneratzea.

Ekintzak:

- 1.G.2.1.- Lan talde bat martxan jartzea genero ikuspegia txertatzeko.
- 1.G.2.2.- Udal langileekin genero ikuspegia barneratzeko formazio saioak burutzea.
- 1.G.2.3.- Udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.

1.G.3. Helburu zehatza: Udalaren jarduera komunikatiboan hizkuntza, irudia eta edukiaren erabilera ez sexista izatea.

Ekintzak:

- 1.G.3.1.- Udalaren kanpo jarduera komunikatiboan erabiltzen den hizkuntza, irudia eta edukia aztertzea.
- 1.G.3.2.- Udalaren kanpo jarduera komunikatiboa ez sexista izan dadin erabiltzen den hizkuntza, irudia eta edukia egokitzea.
- 1.G.3.3.- Udalaren barne komunikazioa (idatzizkoa eta ahozkoa) aztertzea.
- 1.G.3.4.- Udalaren barne komunikazioa ez sexista izan dadin egokitzea.

1.G.4. Helburu zehatza: Udaleko langileen kontratazioan, formazioan eta promozioan, Udalak aukera berdintasunean oinarritutako irizpideak erabiltzen dituela bermatzea.

Ekintzak:

1.G.4.1.- Udaletik bideratzen den lan eskaintza, deialdi eta baldintza pleguak aztertzea.

1.G.4.2.- Udaletik bideratzen den lan eskaintza, deialdi eta baldintza pleguak egokitzea.

1.G.4.3.- Lan eskaintza eta deialdietan aukera berdintasuna bermatzen dela ziurtatzeko hizkuntzaren erabilera aztertzea.

1.G.4.4.- Lan eskaintza eta deialdietan aukera berdintasuna bermatzeko hizkuntzaren erabilera egokitzea.

1.G.4.5.- Talde ezberdinei diru laguntzak esleitzerakoan, talde hauek aukera berdintasunaren alde garatutako politika eta neurri ezberdinak kontutan hartu eta baloratzea.

1.G.4.6.- Azpikontratatu beharreko zerbitzuetako enpresek aukera berdintasunaren alde garatutako neurri edo politika ezberdinak kontutan hartu eta baloratzea

1.G.4.7.- Udaleko formazio planean aukera berdintasunari buruzko saioak txertatzea.

1.G.4.8.- Oposaketetarako gaitegietan aukera berdintasunari buruzko gutxienez gai bat sartzea.

1.G.4.9.- Emakumeok gutxi ordezkatuta dauden lan postuetan ekintza positiboko neurriak aplikatzea.

1.G.4.10.- Gaur egungo lan postuen azterketa egitea genero ikuspegi batetik, etorkizuneko lanpostuetan aukera berdintasuna bermatzen dela ziurtatzeko.

1.G.5. Helburu zehatza: sexuaren araberako sailkapena barneratuko duen datu basea sortzea.

Ekintzak:

1.G.5.1.- Gaur egungo datu basea aztertzea.

1.G.5.2.- Gaur egungo datu basea egokitzea.

1.G.5.3.- Aurrerantzean jasoko diren datuak genero ikuspegitik aztertzea.

2. ardatza: **emakumeen jabetzea eta parte hartze sozio politikoa**

Helburu orokorra: **Udalean emakumeen jabetzea ahalbideratuko duten baldintzak sortzen joatea**

1.J.1. Helburu zehatza: Udaleko emakume langileek beren lanpostuei buruz eta hauen hobekuntzari buruz duten iritzia ezagutzea.

Ekintzak:

1.J.1.1.-Eztabaida taldeak eta galdetegiak burutzea.

1.J.2. Helburu zehatza: emakumeen jabetzea gauzatu dadin baliabideak eskaintzea.

Ekintzak:

1.J.2.1.- Jabetzeari buruzko ikastaroen informazioa ahalbideratzea.

1.J.2.2.- Jabetzeari buruzko ikastaroak eskaintzea.

3.ardatza: **bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna**

Helburu orokorra: **Udalaren jarduerak bateragarritasuna ahalbideratzen duela ziurtatzea**

1.B.1. Helburu zehatza: langileen komiteetan eremu pribatu eta publikoa bateratzeko zailtasunei buruz informatu eta sentsibilizatzea.

Ekintzak:

1.B.1.1.- Langileen batzordeetan emakumeen parte hartzea bultzatzea.

1.B.1.2.- Batzordeetako langileak formatzea bateragarritasunaren inguruan.

1.B.1.3.- Sindikatuek aurkezten dituzten zerrendetan emakumeen presentzia ziurtatzea.

1.B.1.4.- Langileen bateragarritasuna bermatzeko Udalaren funtzionamendua egokitzea.

4.ardatza: **emakumeen kontrako indarkeria**

Helburu orokorra: **Udalean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko baldintzak ematen direla ziurtatzea**

1.I.1. Helburu zehatza: emakumeen kontrako indarkeriarekin amaitzeko prebentzio lana bultzatzea, bai Udalean baita azpikontratatutako enpresetan ere.

Ekintzak:

1.I.1.1.- Sexu jazarpena eta jazarpen sexistarekin amaitzeko protokolo bat onartzea, prebentzio lanari garrantzia emanez.

## Hezkuntza

1.ardatza: **genero zeharkakotasuna**

Helburu orokorra: **herrian berdintasunean oinarritutako heziketaren garrantziaz sentsibilizatzea**

2.G.1. Helburu zehatza: herriko ikastetxean genero ikuspegia barneratzea hezkidetza bultzatuz.

Ekintzak:

2.G.1.1.- Ikastetxeko irakasle eta gurasoei hezkidetzari buruzko formazio saioak bideratzea.

2.G.1.2-. Ikasleengan parekidetasunean oinarritutako baloreak sustatu eta hedatzeko plangintza ezberdinak lantzea.

2.G.1.3.- Irakasleengan parekidetasunean oinarritutako baloreak sustatu eta hedatzeko plangintza ezberdinak lantzea.

2.G.1.4.- Gurasoengan parekidetasunen oinarritutako baloreak sustatu eta hedatzeko plangintza ezberdinak lantzea.

2.G.1.5.- Ikastetxeetan erabiltzen den materialaren azterketa egitea.

2.G.1.6.- Ipuin ez sexisten bilduma osatu eta zabaltzea.

2.G.1.7.- Jolas ez sexisten bilduma osatu eta zabaltzea.

2.G.1.8.- Ipuin kontalarien saioak antolatzea.

2.G.2. Helburu zehatza: Itsasondoko guraso eta irakasleak estereotipatu gabeko lan orientazioari buruz sentsibilizatzea.

Ekintzak:

2.G.2.1.- Gai honen inguruko mintegiak antolatzea guraso, irakasle eta hezitzaileentzat.

2.G.2.2.- Ikasleei genero bazterkeriarik gabeko enpleguaren inguruko mintegiak eskaintzea.

2.G.2.3.- Betidanik maskulinizatuak egon diren lanbideetan aritzen diren emakumeen bisitak antolatzea ikastetxean.

2.G.2.4.- Lanbide ezberdinetan emakume eta gizonen irudiak lantzea.

2.ardatza: **emakumeen jabetzea eta parte hartze sozio politikoa**

Helburu orokorra: **ikasleen ordezkaritzako organoetan emakumeen parte hartzea bultzatzea**

2.J.1. Helburu zehatza: emakume ikasleen jabetzea bultzatzea, organo ezberdinetan parte hartu dezaten.

Ekintzak:

2.J.1.1.- Emakume ikasleen jabetzea bultzatzeko saio ezberdinak eta mintegiak antolatzea.

2.J.1.2.- Irakasleei ikasle emakumeen jabetzea bultzatu dezaten, formazio saioak eskaintzea.

3.ardatza: **bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna**

Helburu orokorra: **ikastetxean erantzunkidetasuna eta bateragarritasunaren inguruko filosofia sustatzea**

2.B.1. Helburu zehatza: etxeko lanak eta menpekoen zaintzaren inguruko erantzunkidetasunaren inguruan ikasleen sentsibilizazioa bultzatzea.

Ekintzak:

2.B.1.1.- Erantzunkidetasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak antolatzea.

2.B.2. Helburu zehatza: bateragarritasunaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzea.

Ekintzak:

2.B.2.1.- Bateragarritasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak antolatzea.

2.B.3. Helburu zehatza: guraso elkartean gizonezkoen parte hartzea sustatzea.

Ekintzak:

2.B.3.1.- Guraso elkartean gizonezkoek parte hartu dezaten kanpaina bultzatzaileak antolatzea.

4.ardatza: **emakumeen kontrako indarkeria**

Helburu orokorra: **Itsasondoko ikastetxean emakumeen kontrako indarkeria ekiditeko elkarren arteko tratu onak bultzatzea**

2.I.1. Helburu zehatza: emakumeen kontrako indarkeria eta sexismoa ekiditeko elkarren arteko tratu onak sustatzea.

Ekintzak:

2.I.1.1.- Mintegi edo formazio saioak antolatzea indarkeria eta sexismoari buruzkoak, eta baita tratu onei buruzkoak ere.

2.I.1.2.- “Nahiko” proiektuari buruzko informazioa jasotzea.

2.I.1.3.- “Nahiko” proiektuari buruzko informazioa eskaintzea ikastetxeari.

# Osasuna

1.ardatza: **genero zeharkakotasuna**

Helburu orokorra: **Itsasondoko osasun arloan genero ikuspegia txertatzea**

3.G.1. Helburu zehatza: faktore psikosozialek emakumeen osasunean duten eraginaz sentsibilizatzea.

Ekintzak:

3.G.1.1.- Faktore psikosozialek emakumeen osasunean duten eraginaren inguruan ikerketa burutzea.

3.G.1.2.- Faktore psikosozialek emakumeen osasunean duten eraginaren inguruan sentsibilizatzea.

3.G.2. Helburu zehatza: emakumeen osasuna hobetzeko osasun zerbitzuetan genero ikuspegia barneratzea.

Ekintzak:

3.G.2.1.- Osasun zerbitzuetan jasotzen diren datuak sexuaren arabera sailkatzea.

3.G.2.2.- Emakumeek gehien pairatzen dituzten gaixotasunen inguruko lanketa berezia egitea.

3.G.2.3.- Emakumeek gehien pairatzen dituzten gaixotasunei aurre hartzeko errebisioak egitearen garrantziaz sentsibilizatzea.

3.G.2.4.- Herriko sendagilea gai hauen inguruan trebatzea.

2.ardatza: **emakumeen jabetzea eta parte hartze sozio politikoa**

Helburu orokorra: **emakumeek osasun eta sexualitateari dagokionez erabakiak hartzera bultzatzea**

3.J.1. Helburu zehatza: emakumeen jabetze fisikoa indartzea eta erabakiak hartu ditzaten bultzatzea sexualitate, gorputz eta ugalkortasunaren inguruan.

Ekintzak:

3.J.1.1.- Gazte eta helduentzat sexualitate askeari buruzko mintegiak antolatzea.

3.ardatza: **bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna**

Helburu orokorra: **adineko eta menpeko pertsonak zaintzen dituzten emakumeen osasun egoera hobetzea**

3.B.1. Helburu zehatza: zaintzaz arduratzen diren emakumeen osasun arriskuak aurreikustea.

Ekintzak:

- 3.B.1.1.- Bizitza osasuntsuagoaren garrantzia jasotzen duten euskarri ezberdinak banatzea zaintzaz arduratzen diren emakumeen artean.
- 3.B.1.2.- Ikastaro ezberdinak antolatzea, erlaxazioa, gimnasia, e.a.
- 3.B.1.3.- Lantalde ezberdinak antolatzea beraien esperientzia elkartrukatzeko.
- 3.B.1.4.- Lanbide hauek emakumeen osasunerako dituzten arriskuen inguruko sentsibilizazio kanpaina garatzea.

4.ardatza: **emakumeen kontrako indarkeria**

Helburu orokorra: **erasotuak izan diren emakumeei laguntza eraginkor eta berehalakoa eskaintzea**

3.I.1. Helburu zehatza: emakumeen indarkeriaren kontrako borrokan parte hartzea sustatzea.

Ekintzak:

- 3.I.1.1.- Udal protokolo eraginkorra martxan jartzea, tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeei laguntzeko
- 3.I.1.2.- Osasun zerbitzua eskaini behar dutenei formazio egokia eskaintzea.

3.I.2. Helburu zehatza: erasotuak izan diren emakumeentzat dauden laguntza publikoen berri ematea.

Ekintzak:

- 3.1.2.1.- Informazio kanpainak lantzea tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzat dauden laguntza publikoen berri emanaz.

3.I.3. Helburu zehatza: Azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazio lan iraunkorra martxan jartzea.

Ekintzak:

- 3.I.3.1.- Ikastetxean Azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazio lan iraunkor bat martxan jartzea.
- 3.I.3.2.- Lantegietan Azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazio lan iraunkor bat martxan jartzea.
- 3.I.3.3.- Kalean Azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazio lan iraunkor bat martxan jartzea.

## Lana eta enplegua

| 1.ardatza: **genero zeharkakotasuna** |
| --- |
| Helburu orokorra: **enpleguaren eremuan aukera berdintasuna sustatzea** |

4.G.1. Helburu zehatza: herriko lantokietan emakumeak kontratatzearen abantailei buruzko sentsibilizazioa lantzea, batik bat betidanik maskulinizatuak egon diren sektoreetan.

Ekintzak:

- 4.G.1.1.- Informazio eta sentsibilizazio kanpainak lantzea emakumeak kontratatzearen abantailak azalduz.
- 4.G.1.2.- Betidanik gizonek burutu dituzten lanetan ari diren emakumeen esperientziak zabaltzea.

4.G.2. Helburu zehatza: 30-55 urte bitarteko emakume langabetuek lan merkaturatzeko dituzten oztopo eta zailtasunak aztertzea.

Ekintzak:

- 4.G.2.1.- 30-55 urte bitarteko emakume langabetuek lan merkaturatzeko dituzten oztopo eta zailtasunak aztertzeko ikerketa lan bat burutzea.

2.ardatza: **emakumeen jabetzea eta parte hartze sozio politikoa**

Helburu orokorra: **lan merkatuko langileen batzordeetan eta erabaki guneetan emakumeen jabetzea eta parte hartzea sustatzea**

4.J.1. Helburu zehatza: lantegietako langile batzordeetan emakumeen parte hartze ezaren arrazoiak aztertzea

Ekintzak:

4.J.1.1.- Azterketa lan bat egitea lantegietako langile batzordeetan emakumeen parte hartze ezaren arrazoiak ezagutzeko.

4.J.2. Helburu zehatza: jabetzea sustatzeko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea.

Ekintzak:

4.J.2.1.- Mintegi eta formazio saioak antolatzea emakumeen jabetzea sustatzeko.

4.J.3. Helburu zehatza: autoenplegua aukeratzen duten emakumeei laguntzea.

Ekintzak:

4.J.3.1.- Diru laguntzen poltsa bat osatzea emakumeen proiektu profesionalak diruz laguntzeko.

4.J.4. Helburu zehatza: erabaki guneetan emakumeak egotearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpaina lantzea.

Ekintzak:

4.J.4.1.- Erabaki guneetan emakumeak parte hartzearen inguruan mintegiak edo formazio saioak burutzea.

